

Euskal presoak gose greban

demokratikoak finkatzeko eta jarraitu beharreko bidea zehazteko, herri batzarrak egiten ari dira AABak Euskal Herri osoan, eta hilaren 20an Donostiako Anoetako belodromoan egingo dute oinarri demokratikoen aurkezpen jaialdia. Oinarri demokratikoez mintzatzean, Olanok haien edukia oroitarazi du, labur: «Euskal Herrian hasitako prozesua demokratikoa eta nazionala izan dadin, Euskal Herriak kanpoko esku-hartzerik gabe erabaki behar du; beraz, indar okupatzaile armatuek joan egin behar dute. Bestetik, euskaldun guztiek prozesuan libreki eta zuzenean parte hartzea ezinbestekoa da, eta, horretarako, presoek kalean egon behar dute eta exiliatuek etxean». Bi baldintza horiek prozesuaren abiapuntu gisa jarri behar direla dio, eta ez amaierarako utzi.

Herriz herriko lana

Olanok adierazi zuenez, oinarri demokratikoen inguruan indar metaketa bideratu nahi dute. «Herriz herri, auzoz auzo, ikastetxez ikastetxe batzar irekiak antolatuko ditugu, ahalik eta jende gehien biltzeko. Batzar askotarikoak izatea nahi dugu, eta gogoeta eta eztabaida uneak izatea nahi genuke. Marko horretan erabakiak hartu eta dinamikak sortzen diren heinean egingo dira urratsak alderdietara eta udaletara. Presoen borrokaldiari dagokionez, guk ere herriz herriz presoekin batera borroka egiteko premia azpimarratuko dugu».

Presoek prozesuan parte hartzea beharrezkoa ikusten dutela esatean, beste kasu batzuetan izandako parte-hartzea aipatu zuen Olanok. «Gatazka politikoa izan den herrietan presoek bete duten tokia funtsezkoa da». Irlandako kasua adierazgarrienetakoa da, eta han gobernuak presoekin azaldutako jarrera malgutasunezkoa izan dela dio Olanok, «badakitelako nolako itzala eta eraginkortasuna duten presoek. Euskal Herrian ere euskal preso politikoek itzal handia dute euskal gizartean. Prozesua ezin da aurrera atera preso politikoei bizkarra emanez». Baina Irlandako kasuan gobernuen aldetik borondatea bazegola nabarmendu zuen AABetako kideak, eta Espainiako eta Frantziako gobernuak ez dutela borondaterik.

Axun Erzibengoa
DONOSTIA

Vincent Wood • IRLANDAKO PRESO ERREPUBLIKANO OHIA •

«Irlandako prozesuan, ikuspuntua presoak askatzetik haratago egon zen beti»

VINCENT WOOD 1992an kartzelatu zuten, eta 17 urteko zigorretik sei urte egin ditu kartzelan. Ostiral Santuko Akordioari jarraikiz askatu zuten. Sinn Feineko Batzorde Eragile Nazionalen kidea da, eta egun preso ohien Coiste na n-archimi taldearentzat lan egiten du.

■ Zer garrantzi du presoek parte hartzeak Irlandako prozesu politikoan eta antzekoetan?

Preso errepublikanoek eztabaidatzeko eta beren borroka politikoa lantzeko aprobeztatu dituzte beti kartzelaldiak. Mugimendu errepublikano buruzagi politikoak espetxean egonak dira; beraz, onartua dago presoen iritziek gure politikaren zati bat osatzen dutela.

Bake prozesuan, presoek iritzia galdetu zaie eta egoeraren berri eman zaie denbora guztian, eta ezin konta ahala mezu iritsi dira Irlandan guztitik, baita kanpotik ere, presoek sustengua emateko. Botoemaile errepublikanoek aintzat dituzte presoen iritzia, eta presoek buruzagi errepublikanoei emandako babesa lagungarria izan da prozesuan.

■ Zuen kasuan, zertan da parte-hartze hori, praktikan nola gauzatzen da?

Prozesu honetan alde asko izan dira. Presoen azterketa politikoak lagungarriak izan ziren bake prozesua ekarri zuten politikak lantzeko orduan. Presoek berek beste alderdi politikoetako ordezkariekin hitz egin dute, eta oraintsu askatu dituzten zenbait preso parte hartzen ari dira gobernu britainiarrekin eta irlandarrekin eta Irlandako iparraldeko alderdiekin egiten ari diren negoziazioetan.

Argi dago gure borroka sendoagoa dela preso eta preso ohien ekarriari esker. Nabarmena da gobernu britainiarrak eta irlandarrak aintzat hartzen dutela presoen garrantzia; Ostiral Santuko Akordioaren emaitzari erreparatu besterik ez dago: presoak askatu egin behar zirela ere onartu dute.

Jakina, parte hartzea ez gintuzten espetxeetako agintariek eta gobernuak bultza-



ITZIAR IRWIN

tu: mugimendu errepublikanoaren, presoen eta beste talde batzuen presio politiko argiari esker lortu dugu.

■ Gizarteari zer iruditzen zaio presoek parte hartzea prozesuan, begi onez ikusten du?

Gizarte esaten denean zer esan nahi den ikusi behar da. Zalantzarik gabe, Sei Konderrietako komunitate errepublikanoak garbi izan du beti gerrako presoen eginkizuna. Baina azken 30 urteetan prentsa kontratua izan dugu, eta IRAko boluntarioak eta komunitate errepublikanoa demonioaren pare jarri dituzte.

Azken bost urteetan, ordea, zentsura bukatu da eta jarrerak aldatu egin dira, eta, bistan da, jendea harritua dago, mugimendu errepublikanoak gatazka konpontzeko bide egituratu eta argia hartu duela ikusirik.

Gatazka gertutik ezagutzen dutenek argi eta garbi onartzen dute presoek lan erabakigarria egin dutela. Oraindik ere lan asko egin beharko dugu Irlandako

bakearen etsaien propagandari gogor egiteko.

■ Eta presoek berei zer iruditzen zaie prozesuan parte hartzea?

Guk, negoziazioak egin bitartean, burua argi izan genuen. Bagenekien aukera genuela gure iritzia emateko, baina gure parte-hartzeak bazituen mugak ere. Guk babesa ematen genion negoziazio taldeari. Guretzat, haxe zen garrantzitsuena; britainiarrak gure herriaren afertan sartzen direla. Argi utzi genuen, presoek, ez ginela izango trukerako gaia gobernu britainiarraren

esku. Prozesuan, ikuspuntua presoak askatzetik haratago egon zen beti, eta bai guk eta bai erakundeko zuzendaritzak oso garbi utzi genuen hori.

■ Garrantzitsua da presoen askapena ez jartzea bake prozesuko elkarriketen menpe?

Akordiorik ezin negoziatuko da eta gatazka ezin konponduko da presoak kartzelan dauden bitartean. Preso-

ak politikoak direla onartu beharra daukate. Ostiral Santuko Akordioan, presoak preso politiko direla onartu dute; horregatik osatu da askatzeko programa. Prozesuan izan diren krisietatik bat bera ere ez dute presoek sortu, eta bake prozesua den bitartean, IRAren su-eten eta guzti, presoak askatuz joan behar dute.

■ Euskal presoek mugagabeko gose greba hasi dute Euskal Herrian hasitako prozesuan parte hartzeko eskubidea dutela aldarrikatzeko. Zer iruditzen zaizue?

Tristatu egiten nau ikus-teak euskal presoak gose greba egitera behartuta dudelako. Oso kezagarria da, eta presio handia sortuko du, bai presoen artean, bai haien familietan. Seguru nago presoek eta kanpoko kideek kontuan hartu dituztela bide guztiak eta beste erremediorik ez dutela izan.

Espainiako Gobernuak ez daki luzera begira jarduten, eta oker dago uste badu ez duela zertan kasurik egin presoen iritzia; nonbait, ez du ikasi historiak erakusten duen hau: zapalkuntza hutsak ezin garaitu duela jende konprometitu, zintzo eta politizatua. Elkartasuna adierazi nahi diet preso horiei, eta espero dut Espainiako Gobernuak ohartzea presoek funtsezko tokia dutela zuen borrokan.

■ Zuen esperientzia ikusirik, zer garrantzi izango luke presoek eskatutakoa lortzeak?

Lehenik eta behin, espero dut euskal presoek eskatutakoa lortzea. Ezinbestekoa izango da hori, zuen herrian bakea eta gatazka modu onean konpontzea lortu nahi bada. Espero dut Espainiako Gobernuak lehenbailehen onartzea hori hala dela. Gure esperientzia ikusirik, argi ikusten da gobernu zapaltzaileei kosta egiten zaiela ikastea, baina haiek aldaraztea badago. Euskaldun guztiek fronte bateratua sortu behar dute presoen alde.

Itziar Irwin
DUBLIN

Euskal Herriko kasua

■ ■ ■ «Euskaldun guztiek fronte bateratua sortu behar dute euskal presoen alde»